


Eskuliburu laburra

Telefonoa erabiltzeko moduari buruzko informazio gehiago izateko, jo ezazu www.alcatelonetouch.com webgunera, eta deskargatu erabiltzailearen eskuliburu osoa (ingelesez bakarrik). Webgune horretan, ohiko galderak (FAQ) ere kontsultatu ahal izango dituzu (ingelesezko bertsioa bakarrik).




www.sar-tick.com

BABESTU BELARRIAK
Entzumenari kalterik ez eragiteko, ez entzun musika bolumen altuan denbora luzez. Kontuz ibili entzungailua erabiltzean gailua belarritik gertu badago.






Zure telefonoa






- 1 Ezkerreko funtzio-tekla
- 2 Telefonoa hartzeko/ Deitzeko
- 3 Dei-erregistroa Ahots-postontzia (luze sakatuta)
- 4 Eskuineko funtzio-tekla
- 5 Pizteko/Itzaltzeko tekla Esekitzeko
- 6 Bibragailua (luze sakatuta)
- 7 Nabigazio-tekla: Menu-tekla/Aukera bat berresteko tekla
- 8 Profilak
- 9 Egutegia
- 10 Mezuak
- 11 Alarma













1.1 Tekiak

-  Nabigazio-tekla
Aukera bat berresteko (tekla erdian sakatuta)
-  Telefonoa hartzeko / Deitzeko
Itxaroteko pantailan:
Sakatu dei-erregistrora sartzeko tekla (berriro deitzea)
-  Luze sakatu telefonoa pizteko/itzaltzeko tekla.
Esekitzeko
Itxaroteko pantailara itzultzeko

-  Ezkerreko funtzio-tekla
-  Eskuineko funtzio-tekla
-  Luze sakatu tekla hau ahots-postontzira sartzeko.



-  Editatzeko moduan:
- Labur sakatuta: ikurren taulara joateko.
- Luze sakatuta: zero idatzeko.
-  Editatzeko moduan:
- Labur sakatuta: idatzeko metodoak aldatzeko.
- Luze sakatuta: hizkuntza-zerrendara joateko.
-  Itxaroteko pantailan:
- Labur sakatuta: #
- Luze sakatuta: bibrazio-modua aktibatzeko/desaktibatzeke.
Editatzeko moduan:
- Labur sakatuta: — (zuriunea)

1.2 Pantaila nagusiko ikonoak ⁽¹⁾

- 1035X** modeloan:
-  **Bateriaren kargatze-maila**
 -  **Bibrazio bidezko alerta:** telefonoak bibratu egiten du, baina ez du soinurik egiten.
 -  **Entzungailuak konektatuta.**
 -  **Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta:** diiak desbideratzen ditu.
 -  **Alarmak edo hitzorduak programatuta.**
 -  **Estaldura-adierazlea**
 -  **Mezu berria ahots-postontzian.**
 -  **Dei galduak**
 -  **Irratia piztuta.**
 -  **Roaminga.**
 -  **Musika aktibatuta.**
 -  **Modu isila:** telefonoak ez du soinurik egiten eta ez du bibratzen, alarmaren bat izan ezean.
 -  **Irakurri gabeko SMSa.**
 -  **Hegazkin-modua.**

⁽¹⁾ Eskuliburu honetako ikonoek eta irudiek orientazio gisa balio dute.


1035D modeloan:

-  **Estaldura-adierazlea.**
-  **Deiak desbideratzeko aktibatuta:** diiak desbideratu egiten dira.

2 Martxan jartzea

2.1 Erabiltzeko moduan jartzea

Atzeko estalkia kentzea eta berriz jartzea



Bateria kentzea eta berriz jartzea





SIM txartela sartzeko eta ateratzea



Jarri SIM txartela txipa beharantz duela, eta sartu dagokion tokian. Egiaztatu behar bezala sartuta dagoela. Txartela ateratzeko, sakatu, eta atera kanporantz.

Bateria kargatzea



- Konektatu bateria-kargagailua telefonora eta korrante-hargune batera.
- Baliteke kargatze-prozesua hasi arte 20 bat minutu igarotzea, bateria guztiz agortuta badago.
 - Saiatu entxufea ez behartzen korrante-hargunean.
 - Egiaztatu bateria ongi sartu duzula kargagailua konektatu aurretik.
 - Korrante-harguneak telefonotik gertu egon behar du, errazago iristeko (luzapen elektrikorik ez erabiltzea gomendatzen da).
 - Telefonoa lehen aldiz erabili aurretik, bateria osorik kargatzea gomendatzen da (3 orduz, gutxi gorabehera). Bateria osorik kargatzea gomendatzen da.
 - Kontsumoa murrizteko eta energia gaizki/alferrik ez erabiltzeko, bateria guztiz kargatuta dagoenean, deskonektatu kargagailua korrante-hargunetik.
-  Bateria erabat betetzen denean, animazioa gelditu egiten da.

2.2 Telefonoa piztea


Luze sakatu  tekla, telefonoa piztuta egon arte.

2.3 Telefonoa itzaltzea

Luze sakatu pantaila nagusiko  tekla.


3 Deiak

3.1 Deiak egitea

Markatu nahi duzun telefono-zenbakia, eta sakatu  tekla, dei bat egiteko. Akatsen bat eginez gero, erabili eskuineko funtzio-tekla okerreko digituak ezabatzeko.

Esekitzeko, sakatu  tekla.

Larrialdiko diiak egitea

Zure telefonoa sareko estaldura-eremuan badago, markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu  tekla, larrialdi-deia egiteko. SIM txartelik gabe ere funtzionatzen du, baita PIN kodea sartu gabe ere.

3.2 Ahots-postontzira deitzea⁽¹⁾

Ahots-postontzira sartzeko, luze sakatu  tekla.

3.3 Deiak jasotzea

Deia jasotzean, sakatu  tekla deia hartzeko, eta, amaitzen duzunean, sakatu  tekla deia amaitzeko.



3.4 Telefonoz hitz egiten ari zarenean erabil ditzakezun funtzioak

Dei batean, zure agenda, egutegia, mezuak eta abar erabil ditzakezu, komunikazioa eten gabe.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

4 Kontaktuak.....

4.1 Agenda kontsultatzea

Hasierako pantailatik **agendar**a sartzeko, sakatu  tekla, eta aukeratu menuko  ikonoa.

SIM duala duten modeloetan, SIM1 eta SIM2 txarteletako kontaktu guztiak daude eskuragarri menu⁽¹⁾ honetan.


4.2 Kontaktuak gehitzea

Kontaktu berri bat gehitu diezaiokezu telefonoari edo SIM txartelari, **"Sortu fitxategia"** aukeratuta.

5 Mezuak.....


5.1 Mezu bat sortzea

Testu-mezu bat sortzeko, aukeratu **"Mezuak"**, menu nagusian. Mezu bat idatz dezakezu; halaber, aurrez definitutako mezu bat alda dezakezu **SMS txantiloia** aukeratik. Mezu bat idazten ari zaren bitartean, hautatu **"Aukerak"**, mezuaren aukera guztietara sartzeko. Maiz bidaltzen dituzun mezuak **Zirriborroak** atalean gorde ditzakezu.

 Karaktere batzuek (azentuak) SMSaren tamaina handitu dezaketenez, baliteke jasotzaileari SMS bat baino gehiago bidaltzea.

6 Dei-erregistroa

6.1 Sarbidea

- Aukera hauen bidez sar zaitzetzeko funtziora:
- Menu nagusian, aukeratu .
 - Pantaila nagusian, sakatu bidaltzeko tekla.

6.2 Erabilgarri dauden aukerak

"Aukerak" sakatuta, aukera hauek dituzu: **Ikusi, Bidali SMSa, Gorde kontaktuetan, Editatu deitu aurretik, Gehitu zerrenda beltzean, Gehitu zerrenda zurian, Ezabatu,**...

7 Musika.....

Funtzio honetara sar zaitzetzeko hasierako menuetik **"Musika"** hautatuta. Zure memoria-txarteleko musika kudeatzeko malgutasun osoa izango duzu. Musika aktibatuta aurretik, ziurtatu memoria-txartela ondo sartu duzula.

8 FM irratia.....

Zure telefonoak RDS funtzionalitatea duen irrati⁽¹⁾ du. Aplikazioa irrati arrunt gisa erabil dezakezu, eta kateak gorde. Pantailan, irratsaioari buruzko informazioa ikus daiteke Visual Radio zerbitzua eskaintzen duten kateak sintonizatuz gero. Beste aplikazio batzuk exekutatzeko dituzun bitartean, irrati entzun dezakezu.

9 Nire fitxategiak

Memoria-txartelean, **Fitxategiak** karpetan, jasotako audio- eta bideo-fitxategi guztietara sar zaitzetzeko. Hainbat elementutara sar zaitzetzeko aukera honen bidez: **Nire audio fitxategiak, Photos.**

Memoria txartela sartzeko eta ateratzeko:



Sar ezazu microSD txartela, urre-koloreko kontaktua beharantz duela. Txartela ateratzeko, sakatu, eta atera kanporantz.

10 Doikuntzak

Menu nagusian, aukeratu  ikonoa, eta aukeratu nahi duzun funtzioa, telefonoa pertsonalizatzeko: **Telefono-ezarp., Dei-ezarpenak, Sarea, Segurtasuna, Legeak eta segurtasuna, Berrezari Lehents., SIM Dualeko ezarpenak**⁽¹⁾.

11 Tresnak.....

11.1 Alarma
Zure telefono mugikorrak iratzargailua du, eta errepikapen-funtzioa dauka.

11.2 Kalkulagailua

Idatzi zenbaki bat, hautatu egin nahi duzun eragiketa, eta hautatu beste zenbaki bat. Ondoren, sakatu "=", emaitza bistaratzeko.

11.3 Egutegia

Menu nagusitik menu honetara sartzen zarenean, hilabeteko egutegiaren ikuspuntua agertuko zaizu.

11.4 Oharrak

Testu-formatua duen ohar bat sor dezakezu menu nagusiko **"Oharrak"** aukeran.

11.5 Bihurgailua

Pisu- eta luzera-bihurgailua erabil dezakezu. Aukeratu bihurtu nahi duzun unitatea, eta, gero, sartu digituak. Beheko unitatean ikusiko duzu erantzuna.

11.6 Ahots-alarma


Menu honen bidez, ahots-fitxategi bat sor dezakezu, eta alarma gisa ezarri.

11.7 Dei-simulazioa



Funtzio honekin, zeure telefonora dei bat egin dezakezu, dei baten soinuaren itxura eginez. Hala, egoera deseroso batean, dei-simulazioaren funtzioa aktiba dezakezu norbaitek deitzen dizun eta erantzun beharra daukazu itxurak egiteko.

Luze sakatu . Dei-simulazioa aktiba dezakezu, **"Dei faltsua"** sakatuta.

11.8 Dei-iragazkia

Zerrenda beltza aktibatuz gero, solaskide guztiak automatikoki blokeatuko dira. Zerrenda zuria aktibatuz gero, zerrenda horretako solaskideekin soilik hitz egin ahal izango da. Zerrenda bakoitzari 50 kontaktu gehi diezazkiokezu Contactos, Registro de llamadas edota Mensajes aukeratik, edo zuzenean gehi ditzakezu,  tekla sakatuta.

11.9 Linterna

Pizteko, aktibatu linterna, honela:
Itxaroteko pantailan, luze sakatu  linternaren argia aktibatze-ko. Sakatu  edo luze sakatu , desaktibatzeke.

11.10 Zerbitzuak

Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

12 Profilak.....

Menu honen bidez, gertaera eta giroetarako melodiak pertsonaliza ditzakezu.

⁽¹⁾ 1035D modeloan bakarrik.
Euskara

⁽¹⁾ Irratiaren kalitatea une horretan zauden eremuan kateak duen estalduraren arabera da.

⁽¹⁾ 1035D modeloan bakarrik.

⁽¹⁾ 1035D modeloan bakarrik.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

